

# Pentsioen erreforma: pobretze politiken beste urrats bat

Azterketa Bulegoa  
2023ko urtarrilak 16



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**

**EUSKAL SINDIKATUA**



**AURKIBIDEA**

Sarrera .....	3-4
Egungo testuingurua .....	4-5
Ondorioak .....	6
ELAren aldarikapenak pentsioen inguruan .....	6-7

**SARRERA**

Pentsioen erreformak azken hamarkadetan aplikatzen ari diren pobretze politiken beste osagai bat dira, garrantzitsuenetakoak. Gero eta biztanle gehiagori eragiten diote, eta bereziki sektore prekarioenei.

Hego Euskal Herriko populazioaren %22,6 pentsiodunak dira (%19,7 Nafarroan eta %23,5 EAEn). Inoiz esan izan dugunez, pentsioen erreformekin murrizketa sistematikoak aplikatu dira, hiru eratakoak: pentsio berri urriagoak, erretiro adinaren atzerapena (legezkoa edo erretiro aurreratua eragotzita) eta eros ahalmenaren galera.

**PENSIODUNAK ETA BIZTANLERIAN DUTEN PISUA. HEGO EUSKAL HERRIA. 2022**

	PENSIODUNAK	BIZTANLERIA	PENSIODUNEN % BIZTANLERIAREKIKO
EAE	515.000	2.187.000	%23,5
NAFARROA	130.000	662.000	%19,7
HEGO EUSKAL HERRIA	645.000	2.849.000	%22,6

*Iturria: Geure lanketa, Gizarte Segurantzaren eta INEren datuekin.*

Datuen arabera ondorioztatu dezakegu:

1. **Pentsioen maila ez da nahikoa.** Pentsioak apalak dira. Batez besteko zenbatekoa 2022ko azaroan (argitaratu den azken datua) EAEn 1.356 euro ziren. Nafarroan, aldiz, 100 euro gutxiago (1.256). Pentsioen zati handi bat pobrezia mailaren azpitik dago.

**2. Deigarria da bereziki emakumeen egoera kaskarra.** Ez soilik alargunena; genero diskriminazioa erretiro pentsio apalagoetan islatzen da, emakumeek enpleguan pairatu izan duten diskriminazio anitzaren ondorioz.

**BATEZ BESTEKO PENTSIONEN ZENBATEKOA. EAE ETA NAFARROA. GIZON ZEIN EMAKUMEAK. 2022KO AZAROA**

	<b>EAE</b>	<b>NAFARROA</b>
<b>BATEZ BESTEKO PENTSIONA</b>	<b>1356</b>	<b>1256</b>
Gizonak	1682	1545
Emakumeak	1056	977
<b>BATEZ BESTEKO ERRETIRO PENTSIONA</b>	<b>1542</b>	<b>1417</b>
Gizonak	1803	1653
Emakumeak	1147	1064
<b>BATEZ BESTEKO ALARGUN PENTSIONA</b>	<b>950</b>	<b>863</b>
Gizonak	669	617
Emakumeak	973	886

*Iturria: Gizarte Segurantza*

**3. Pentsioetara bideratzen den aberastasunaren zatia ez da Europako batez bestekoa baino handiagoa.** 2021ean era guztietako pentsioak ordaintzera bideratu ziren 10.279 milioi euro EAEn eta 2.345 milioi Nafarroan. Hau da, guztira 12.624 milioi, BPGaren %12,6. 2020an Europako batez besteko maila BPGaren %13,6 zen, EB baitan gorabehera handiak zirelarik estatu artean, hala pentsioen sistema publikoari nola honetara bideratutako gastu publikoari zegokionez. Euroguneko batez besteko maila BPGaren %14,1ekoa izan zen.

**4. Ulergaitza da aberastasunaren %12,6 besterik ez baliatzea biztanleriaren %24,2arentzat.** Hemen aberastasunaren banaketa dago jokoan. Aferikoa da, adineko jendea biztanleriaren zati gero eta handiagoa bada, pentsioak ordaintzeko erabiltzen den aberastasuna gehitu egin behar da. Hau ez da eztabaida tekniko bat, politikoa baizik. Sakoneko kontua da erabakitzea jende horri zenbateko diru-sarrerak bermatu behar zaizkion, eta hori nola finantziatu; horretarako badira alternatibak. ELAk defendatutakoa adibidez, zerga bidezkoa.

**EGUNGO TESTUINGURUA**

Pedro Sanchezen Gobernuak konpromisoa hartu zuen 2021eko apirilean Europako Batzordearekin Europar Funtsak jasotzearen truke hainbat erreforma egingo zituela (ELAk bere garaian ukatu egin zituen funts horien baldintzazkotasunaren ondorioak).

2021eko ekainean eman ziren ezagutzera konpromiso horiek jasotzen zituzten dokumentuak. Besteak beste, 30. osagaia delakoa, pentsioen erreforma 2 fasetan egiteko akordioari buruzkoa:

- Erreformaren lehen zatia 2021ean egin behar zen, baita gauzatu ere; legea Parlamentuan abenduaren 28an bozkatu eta onartu zen.
- 2022rako utzi ziren gainerako erabakiak. Garrantzitsuena, pentsio berriak urritzea, zenbatekoa kalkulatzeko kontutan izaten den urte kopurua gehituz.

Pentsioak kalkulatzeko aintzat hartzen den urte kopurua gehitzea da pentsio berrien zenbatekoa murrizteko erreformen neurri nagusia.

Pedro Sanchezen gobernuak eta Europar Batzordeak adostutako dokumentuak hau dio: "Erretiro pentsioaren kalkulurako konputu aldia luzatzea da Espainian 1985etik hona egin diren erreforma handi guztietako aldaketa parametrikotako bat: orduan epealdia 2 urtetik 8raino luzatu zen; 1997an, 15 urteraino; eta 2011ko erreformak mailaka luzatu zuen, 2022ko 25 kotizazio urteraino".

Bruselarekin adostutako dokumentuak agerian uzten du 2022an gehitu egin behar dela pentsioa kalkulatzeko kontutan izaten den urte kopurua.

Gobernuak argi adierazi du pentsioaren kalkulua egiteko urte kopurua mailaka 25 urtetik 30eraino gehitzeko asmoa duela.

Horrek zuzeneko eta berariazko eragina du: pentsio berriak urriagoak izatea. Hau ez du ELAK bakarrik adierazten, Espainiako Bankuak aurten argitaratu duen txosten baten esanetan:

- epea 15 urtetik 25eraino luzatu izanak batez besteko pentsioa %5 murriztea dakar
- Eta 25 urtetik 35era pasaz gero murrizketa beste %8,2 areagotuko litzateke.

Gainera argia da, 25 urtetik 30eraino luzatzea ez dela azken urratsa izango.

Murrizketa zuritu edo justifikatu nahian bi argudio aipatzen dira funtsean: lehena, urte hoietatik interesatuak 24 hilabete okerrenak ken daitezkeela; horrela erreformaren eragin ekonomikoa "neutroa" ei litzateke; bigarrena, soldatarik apalenak dituztenen onerako izango dela, hots, esaterako emakumeentzat. Bi argudioak faltsuak dira, eta Espainiar Bankuaren txostenak horrela azaltzen du:

- Noski, 24 hilabete okerrenak kentzeko aukera izatea hobea da aukera ez izatea baino. Baina pentsio berriak murriztu egingo dira hala ere. 12 hilabete kenduz gero %1,7ko aldea legoke, guztizko murrizketa 8,2 puntukoa izanik.
- Urte kopurua gehitzea sektore sozial jakin batzuen onerako dela diotenen argudioak ere ezerrezean geratzen dira. Txostenaren arabera 15 urtetik 25era gehituta emakumeen pentsioak areago jaitsi direla (%5,4) gizonenak baino (%4,8). 25 urtetik 35era pasaz gero (dokumentu horretan analizatzen den hipotesia) eragina antzekoa litzateke gizon (%8,3) zein emakumeentzat (%8,1).

Pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen den urte kopurua handitzeak eragin negatibo bikoitza du pentsio berrien zenbatekoan. Alde batetik, kotizazio oinarri baxuenak dituzten urteak sartzen dira normalean oinarri arautzailea kalkulatzeko. Bestetik, kotizatu gabeko aldiak sar daitezke, eta horrek pentsioa are gehiago jaistea eragiten du. Horrela, denbora gutxien kotizatuta duten pertsonak bi aldiz zigortzen dira, eta horrek generoaren eta klasearen irakurketa argia du. Emakumeei egiten die kalte, batez ere prekarioenei, haiek

kotizatu baitute denbora gutxien, eta askotan lanaldi partzialean. Pentsioa kalkulatzeko zenbatzen duten urte kopurua handitzea atzerakada argia da emakumeentzat eta gizarte honetako pertsona prekarizatuenentzat.

## ONDORIOAK

- Erreforma laster onartuko denez, ELAk baztertu egin ditu planteatzen diren murrizketak, batez ere pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen den urte kopurua handitzea.
- Aurrerapauso txiki (ia hutsal) batzuek, esaterako soldatarik altuenen kotizazioari mugak kentzea, urtero %1 KPIz gaindi, edota kotizazio aldiko hutsuneen estaldura zertxobait hobetzea, ez dute arintzen erreformako puntu nagusiaren larritasuna.
- Gogoratu behar da CCOOk eta UGTk murrizketa horiei ematen dieten babesak. Bi erakundeak prest agertu dira gobernuarekin erreforma hori adosteko. Horrek berretsi egiten du ustezko elkarrizketa sozialaren inguruan dugun balorazio negatiboa eta bake soziala gailentzeari ematen dioten lehentasunari.
- Nahiz eta pentsio murrizketa oro larria izan, "ezkerreko" gobernuak egiten dituztenean langile klasearentzako ondorioak are suntsigarriagoak dira: horrela politika arbuia eta eskuin muturreko ideiak hedatu egiten dira.

## ELAREN ALDARRIKAPENAK PENTSIONEN INGURUAN

- Pentsioen zenbatekoa hobetzea eta haiek ordaintzeko baliatzen den aberastasunaren zatia zeharo gehitzea. Hain zuzen, eskari nagusietako bat da 1.260 euroren gutxieneko pentsioa ezartzea. Neurri honek genero inpaktu nabarmena du, pentsiodun txiro gehienak emakumeak izanik.
- 2011n eta 2013an ezarritako murrizketak bertan behera uztea. Beraz, erretiro adinaren atzerapena kendu behar da (65 urtera itzuli), pentsio berrien zenbatekoen murrizketei atzera eragin (pentsioen kalkulurako 15 urte aintzat hartzea eta ez 25; erretiro aurreratuentzako murrizketak kendu...), berriro ere errelebo kontratua hedatu (egun sektore industrialetara, hots, maskulinizatueta, mugatuta dago, eta ziurgabetasuna oso handia da: 2023rako luzapena baino ez da erabaki oraingoz).
- Kalitatezko enplegua sortu eta soldatak KPIz gaindi eguneratu.
- Pentsio sistema publikoa sustatu, ez finantza erakundeen negozioa.
- Pentsioak Hego Euskal Herrian erabaki. HEHn bizi den jendearen pentsioak bertan erabaki behar dira. Berehalakoa, pentsioak osatuz, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eskatzen dugun gutxienekoa arte osa ditzakete eta osatu behar dituzte pentsioak. Era berean, DSBEaren eta GERen zenbatekoa LGSaren % 100ekoa izan behar da pentsiodunentzat.
- Pentsioen finantziazioaren oinarri bakarra ezin dira kotizazio sozialak izan. Superabita zegoenean pentsioak ez dira hobetu. Orain defizita dagoelarik murriztu egin behar omen dira. Zerbitzu publikoak, gizarte prestazioak, justizia, polizia,

Errege Etxea... zergekin finantziatzen dira; gauza bera egin behar da pentsioekin ere.

- Toledoko Ituna eta beronen filosofia ukatu; ondorioz, baita hartatik eta sasi elkarrizketa sozialetik datozen erreforma eta murrizketa guztiak ere.
- Aurreko erreformekin gertatu den bezala, ELAn uste dugu neurri eta erreforma horiei aurre egiteko eta behar bezala erantzuteko modua protesta eta mobilizazioa dela.

Gogoratu behar da, pentsioen erreforma bat onartzeak Espainiako Kongresuan eta Senatuan gehiengoa izatea eskatzen du. ELAk Hego Euskal Herrian ordezkariak duten alderdi guztiei, bereziki EH Bildu, Unidas Podemos, EAJ eta Geroa Bai, exijitu die berehala konpromisoa har dezatela pentsioa kalkulatzeko epea luzatzea errefusatzeko.







[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**